

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala**

**2018ko LEPari dagozkion ofizial iturgineko bi (2) plaza (Administrazio bereziko eskalakoak, Zerbitzu Berezien azpieskalakoak, Lanbide Klasekoak eta C2 taldekoak) txanda irekian eta oposizio-sistema bidez betetzeko deialdia eta oinarri espezifikokoak.**

Alkate jaunak 3829/2021 zenbakidun Alkatezta Dekretua eman du (2021eko azaroaren 18), eta honela dio, hitzez hitz:

Kontuan hartuta Giza Baliabideen buruak 2021eko azaroaren 8an igorritako txostena, zainak honako hau baitio:

2018ko abenduaren 17ko 4445/2018 Dekretuaren bidez 2018 ekitaldiari zegokion LEPa onartzen zuen maiatzaren 14ko 1720/2018 Dekretua aldatu zen (2018ko abenduaren 28ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (249. zenbakia), eta aldaketa horretan, besteak beste, 2018ko LEPean ofizial iturgineko 2 plaza sartu ziren txanda librearen bidez betetzeko.

2021eko azaroaren 3an, negoziazio-mahaian adostu zen ofizial iturginen bi lanpostuetarako deialdia egitea, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 37.c) artikuluan ezarritakoaren arabera, eta, era berean, hautaketa-prozesu hori arautzeko oinarri espezifikokoak negoziatu ziren.

Maiatzaren 20ko 2070/2019 Dekretuaren bidez Basauriko Udalean karrerako funtzionario izateko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu ziren (2019ko ekainaren 11ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, 110. zenbakia), eta hautaketa-prozesu bakoitza gauzatzeko, beharrezkoa da eskala, azpieskala eta klase bakoitzeko plazen deialdia arautuko duten oinarri espezifikokoak argitaratzea. Oinarri horietan, plaza bakoitzaren ezaugarri bereziak ezartzen dira.

Aurreko guztia aintzat hartuta, sinatzen duenak honako proposamen hau proposatzen du:

*Lehena:* Ofizial iturgineko bi lanpostu txanda librean hautatzeko hautaprobeen deialdia onartzea.

*Bigarrena:* Ofizial Iturgineko bi (2) plaza (Administrazio bereziko eskala, Zerbitzu berezietako azpieskala, lanbide klasea, C2 taldea) txanda librean eta oposizio-sistema bidez betetzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikokoak onartzea.

*Hirugarrena:* Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea, bai eta deialdiaren laburpen bat ere Estatuko Aldizkari Ofizialean.

*Laugarrena:* Deialdia onartzen duen dekretuaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtso bat aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtso bat, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organo beraren aurrean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa onartzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan eta Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko.

Txosten/proposamen hori ados dago, eta Alkatezari dagozkion legezko ahalmenak erabiliz, honako hau,

XEDATZEN DUT:

— Transkribatutako ebazpen-proposamena bere horretan onartzea eta ebazpen izaera ematea.

Basaurin, 2021eko azaroaren 22an. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren



## ERANSKINA

**OINARRI ESPEZIFIKOAK: ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA,  
ZERBITZU BEREZIEN AZPIESKALA. LANBIDE KLASEA.  
OFIZIAL ITURGIN PLAZA****1. Deialdiaren plazak**

Administrazio Bereziaren eskalako bi (2) plaza deitu dira, Zerbitzu Berezien Azpieskalakoak. Lanbide-klasea. Ofizial-iturgina, C2 taldea, lanpostu-mailako osagarria:17, eta osagarri espezifikoa: 055 17 H, sarbide libreko sistemaren txanda orokorraren bidez eta oposizio-sistemaren bidez. 1. hizkuntza-eskakizuna, ez nahitaezkoa.

Karrerako funtzionario kargua hartzeko uanean dauden lanpostu hutsen arabera zehaztuko da zerbitzua zer lanpostutan emango den.

Deialdiko plaza-kopurua handitu ahal izango da sortzen diren eta alkate-presidenteren ebazpen bidez deialdi honetan sartzen diren lanpostu hutsen ondorioz. Plaza-kopuruaren igoera hori, hala badagokio, gainditutako pertsonen behin-behineko zerrenda argitaratzeko izapidea egin aurretik egin beharko da (ez da aplikatuko Oinarri Orokorren lehenengo oinarriaren 6. atalean xedatutakoa).

**2. Zereginak***Orokorrak*

- Erabilera eta/edo zerbitzu publikoko edo atxikitako ondasunekin lotutako tailerreko berezko lanak egitea.
- Lanak egiteko esleitutako baliabide materialak eta giza baliabideak kudeatzea.
- Laguntzaileek eta lan-kontratuko langileek tailerrean egindako lanak kontrolatzea eta ebaluatzea.

*Espezifikoak*

- Udal-eraikinetan eta bide publikoetan iturgintzako eta saneamenduko lanak egitea.
- Langileak hartzeko hautaketa-probak egiten laguntzea.
- Laguntzaileek eta lan-kontratuko langileek egindako iturgintza-lanak gainbegiratzea.
- Laguntzaileek eta lan-kontratuko langileek egindako iturgintza-lanak gainbegiratzea.
- Oro har, lanbidearekin zerikusia duten eta nagusi funtzionalek agintzen dizkieten lan guztiak.

**3. Baldintzak**

Maiatzaren 20ko 2070/2019 Alkatetza Dekretuaren bidez onartutako oinarri orokorretan ezarritakoez gain, beharrezkoa izango da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua edo horren baliokidea izatea (Eskola Graduatuaren ziurtagiria, LH1).

Izangaiak aurkeztu beharko du baliokidetasuna, administrazio eskudunak horretarako emandako ziurtagiriaren bidez. Atzerrian lortutako titulazioa duten izangaiek egiaztatu beharko dute dagokien baliozkotzea edo, hala badagokio, tituluaren homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria dutela.

**4. Eskabideak aurkeztea****4.1. Epea**

Hautaketa-prozesuan onartua izateko eskabide normalizatuak hogeita (20) egun baliaduneko epean aurkeztu beharko dira, deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen aurrera.

**4.2. Eskabidearen baldintzak**

Hautaketa-prozesuan onartua izateko eskabideak -Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (HAZ) eta web orrian ([www.basauri.eus](http://www.basauri.eus)) eskuragarri dagoen eredu normalizatua-Alkatetzari zuzenduko zaizkio, eta HAZan aurkeztuko dira (Kareaga Goikoa 52), edo



Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein modutan.

Hautagaiak eskabidearen atal guztiak bete beharko dituzte. Eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute, 3. oinarrian ezarritakoaren arabera.

Horretarako, eskabideei dagozkien ataletan, hautagaiak honako hauek adierazi beharko dituzte:

- Datu pertsonalak.
- Oposizio-fasearen ariketak zer hizkuntza ofizialetan egin behar duten, euskaraz edo gaztelaniaz.
- Deialdian parte hartzeko baldintza gisa alegatutako eta eskatutako titulazio akademiko ofiziala.
- Egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna, halakorik badute. Bestela, hizkuntza-eskakizuna hirugarren ariketari buruzko 8.3 oinarrian ezarritako moduan eta epean egiaztatu ahal izango da.

Hautaketa-prozesuari buruzko argibideak edo informazio-eskaerak posta elektronikoz egingo dira, eskabidearekin batera emango den helbidean.

## 5. Hautagaiak onartzea

Behin eskabideak aurkezteko epea amaituta, Alkatetzaren Dekretu bidez onartutako eta baztertutako zerrenda onartuko da, baztertzeko arrazoiak adierazita, bai eta eskabidean dauden akatsak edo omisioak zuzentzeko kasuak ere. Aipatutako ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Hutsen edo omisioen zuzenketa eskatzeko edo zerrendaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea 10 egun baliodunekoa izango da, aurreko ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Ondoren, alkateak beste ebazpen bat emango du onartutako edo baztertutako behin betiko zerrenda onartzeko, eta ebazpen hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Erreklamaziorik aurkeztu ezean, behin-behineko zerrenda behin betiko zerrenda bihurtuko da automatikoki.

Onarpenak ez dakar prozesua izapidetu bitartean baztertuak ez izateko eskubidea, proba guztiak egiten diren ala ez albo batera utzita, baldin eta ikusten bada, aurkeztutako datuak edo dokumentazioa egiaztatu ondoren, izangaiak hautapen-prozesuan onartua izateko eta parte hartzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ez dituela. Kasu horretan, epaimahai jarduleak dagokion baztertzeko proposamena egingo du, interesdunari entzun ondoren, alkate-presidenteak dagokion ebazpena eman dezan.

Probak egiten diren egunean ez badira ebatzi onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onartzen dituen Dekretuaren arabera prozesutik kanpo dauden izangaiek aurkeztutako errekursoak, egoera horretan dauden izangaiek probak egin ahal izango dituzte, baina, haien errekursoak ezezten badira, probek ez dute baliorik izango.

## 6. Epaimahaia

6.1. Alkatetzaren dekretu bidez zehaztuko da hautaketa-epaimahaiko kideen izendapena, bai eta lehen ariketa non, noiz eta zer ordutan egingo den ere.

6.2. Epaimahaiaren osaera urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 60. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen ezarritakoaren arabera izango da. Epaimahaia epaimahaiburu batek, idazkari batek eta lau kidek osatuko dute, eta deialdian parte hartzeko eskatutako titulazio akademikoa edo handiagoa izango dute kide guztiak. Epaimahaikide guztiak hitza eta botoa izango dute, hitza bakarrik izango duen idazkariak izan ezik. Haren osaera kideen inpartzialtasun-eta profesionaltasun-printzipioetara egokitu beharko da, eta aintzat hartuko da ere emakumeen eta gizonen arteko parekotasuna, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako osailaren 18ko 4/2005 Legearen 20. artikuluan xedatutakoaren arabera.



Epaimahaikideen artean, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak proposatuta izendatutako kide bat egongo da.

Deialdian eskatzen diren hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetan, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako pertsona bat izango da epaimahaikide, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 99.2. artikulua araberaren arabera.

6.3. Epaimahaiak bere lanetan aholkularitza emango duten pertsonak sartzera erabaki ahal izango du. Pertsona horiek hautaketa-prozesuko proba guztietan edo batzuetan beren espezialitate teknikoari lotutako zereginak beteko dituzte bakarrik, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 31.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

6.4. Epaimahaiko kideek ez dute epaimahaian parte hartuko eta hala jakinaraziko diote alkate-presidenteari, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat ematen bada. Lege beraren 24. artikulua erekin bat etorritik, izangaiak epaimahaikideak ezetsi ahal izango dituzte, aurreko artikuluan aurreikusitako arazoaren bat gertatzen bada.

6.5. Oinarri hauetan aurreikusi gabeko alderdi guztietan, epaimahaiaren jardura-prozedura bat etorriko da maiatzaren 20ko 2070/2019 Alkatetza Dekretuaren bidez onartutako oinarri orokorretan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15-19 artikuluetan xedatutakoarekin.

Epaimahaiaren jarduerari eta argitalpenei buruzko alegazioak idatziz aurkeztuko dira Udaleko Erregistroan, Administrazio Elektronikoaren atariaren bidez edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako moduetako edozeinetan.

## 7. Deialdiak eta jakinarazpenak

Deialdiari, emaitzei, kalifikazioei eta bestelako komunikazio eta ebazpenei buruzko alkatearen eta epaimahaiaren erabakiak interneten bidez argitaratuko dira, lehen aipatutako Basauriko Udalaren helbide elektronikoan, egoki irizitako beste edozein publikizitate-modu ezertan eragotzi gabe.

## 8. Hautaketa-prozesua

### 8.1. *Lehen ariketa: (nahitaezkoa eta baztertzaila)*

Bi atal izango ditu, eta biak gainditu beharko dira:

- A) Atala. Aukeran lau erantzun dituzten galderen galdetegi bat idatziz erantzun beharko da epaimahaiak ezarritako gehieneko epean. Galderak oinarri hauei dagozkien gai orokorretan eta espezifikoen (I. eranskina) jasotako edukiei buruzkoak izango dira, eta oker emandako erantzunak zigortu egingo dira.

Zuzeneko puntuazioa honako formula honen emaitza izango da: asmatutako erantzun kopurua ken erroreen kopuruaren herena ( $P = A - E/3$ ). Ondorio horietarako, erantzun gabeko galderak ez dira okertzat hartuko.

A) atalaren azken puntuazioa 0 eta 10 puntu artekoa izango da, eta dezimalen bi zifra onartuko dira. Epaimahaiak, izangaiak nor diren jakin aurretik eta aurkeztutako izangaien ezagutza-maila ikusita, proba gainditzeko gutxieneko puntuazioa zein izango den erabakiko du.

- B) atala. Galdera alternatiboak biltzen dituen galdetegi bat izango da, eta epaimahaiak deialdiaren gai-zerrendako I. eranskinaren zati espezifikoen zehaztutako gaiekin lotutako kasu teoriko-praktiko bat edo batzuk ebatzi beharko dira. Erantzun okerrak zigortuko dira galdera-sorta horretan.

Zuzeneko puntuazioa honako formula honen emaitza izango da: asmatutako erantzun kopurua ken erroreen kopuruaren herena ( $P = A - E/3$ ). Ondorio horietarako, erantzun gabeko galderak ez dira okertzat hartuko.



B) atalaren azken puntuazioa 0 eta 20 puntu artekoa izango da, eta dezimalen bi zifra onartuko dira. Epaimahaiak, izangaiak nor diren jakin aurretik eta aurkeztutako izangaien ezagutza-maila ikusita, proba gainditzeko gutxieneko puntuazioa zein izango den erabakiko du.

Epaimahaiak erabaki dezake ariketaren B) atala ez zuzentzea A) atala gainditu ez duten izangaiei.

Epaimahaiak probaren bi ataletako bakoitza gainditzeko ezarritako gutxieneko puntuazioa lortzen ez duten izangaiak baztertuta geratuko dira.

Lehenengo ariketaren kalifikazioa ariketaren bi zatietan lortutako puntuazioaren batura izango da, betiere bi atalak gainditu badira.

Bi zatiak egun berean egingo dira, elkarren segidan. Proba bakoitzaren gehieneko iraupena Epaimahaiak erabakiko du proba hasi baino lehen. Probak egitean, ezin izango da testurik kontsultatu, ez eta hiztegirik, makina kalkulagailurik edo bestelako materiari erabili ere, boligrafoa izan ezik.

### 8.2. *Bigarren ariketa (nahitaezkoa eta baztertzailea)*

Izangaiek gai-zerrendan jasotako gaiarekin lotutako kasu praktiko bat edo batzuk egin beharko dituzte. Ariketak 0tik 40ra bitarteko puntuazioa izango du, eta dezimalen bi zifra ere onartuko dira; proba gainditzeko 20 puntu lortu beharko dira.

Hautagaiei deialdi bakarra egingo zaie, Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzaren ebazpen bidez agindutakoaren arabera. Ebazpen horren bidez, Langileak Estatuko Administrazioaren Zerbitzura Sartzeari buruzko Erregelamendu Orokorrean aipatzen den zozketaren emaitza argitaratzen da, proba egiten den urteari dagokionez.

Proba hasi aurretik, epaimahaiburuak edo hark eskuordetutako kideak hautagaiei ahoz jakinaraziko die probaren fitxa formalizatuen edukia. Fitxa horietan adieraziko dira, hain zuzen, egin beharreko lanak, erabilgarri dauden materialak, proba egiteko denborak eta lanen kalitate-estandarrak.

Ariketa honetan honako hauek ebaluatuko dira: kasu praktikoak ebazteko gaitasuna; material, makina eta laneko tekniken aplikazio zuzena; zereginak betetzean erakutsitako garbitasuna eta segurtasuna; eta, ezagutza teoriko-praktikoak peoi balioaniztun baten berezko funtzioei modu arrazoituan aplikatzea. Udalak baliabide teknikoak eta proba egiteko behar diren materialak eta tresnak jarriko ditu.

### 8.3. *Hirugarren ariketa: (Borondatezkoa eta ez-baztertzailea) Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proba*

Euskararen ezagutzaren lehen hizkuntza-eskakizuna (ez da nahitaezkoa) egiaztatzean datza.

Hautagaiak euskara-proba egitea salbuetsita egongo dira, baldin eta, hura egin aurretik, jarraian aipatutako egoeraren batean daudela egiaztatzen badute epaimahaiaren aurrean:

1. Lehen hizkuntza-eskakizuna edo hortik gorako bat edukitzea, edo horren balio-kidea den titulu edo ziurtagiri bat izatea, 297/2010 Dekretuaren arabera, zeinak euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen baititu.
2. Proba egiteaz salbuetsita egotea, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak xedatutakoaren arabera.

Hizkuntza-eskakizuna honela egiaztatu beharko da:

- a) IVAPek, HABEK, Osakidetzak edo Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak emandako ziurtagiriak edo tituluak dituzten pertsonak baimena eman ahal izango diote Basauriko Udalari hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidean, ziurtagiri horiek egiaztatzen dituzan.



Aurreko paragrafoan aipatutakoez bestelako euskarako ziurtagiriak edo tituluak dituztenek, edo Udalari egiaztapena baimentzen ez diotenek edo ondoren lortzen dituztenek alegatutako tituluaren edo ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko dute euskara-probak egin aurretik.

- b) 47/2012 Dekretuaren arabera, ikasketak osorik edo zati batean euskaraz egiteagatik hizkuntza-eskakizunaren azterketa egitetik salbuetsita dauden pertsonak. Pertsona horiek eskabidean hori alegatu beharko dute, eta, euskara-proba egin aurretik, ikasketak amaitu dituzten zentroak edo unibertsitateak emandako ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko dute.

Ariketa hau 7 punturekin baloratuko da.

## 9. Prozesuaren emaitza eta agirien aurkezpena

Hautaketa-prozesuaren azken kalifikazioa zehazteko, ariketetan lortutako puntuazio guztiak batuko dira (betiere, gainditu badira). Berdinketak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2015 Legean ezarritako irizpideen arabera ebatziko dira. Berdinketak bere horretan jarraitzen badu, oposizio-faseko bigarren ariketan puntuazio handiena lortu duenaren alde erabakiko da, eta horrela ere berdinketa ematen bada, oposizioko lehen ariketako b) atalean puntuazio handiena lortu duenaren alde erabakiko da. Eta, azkenik, berdinketak jarraitzen badu, epaimahaiak zozketa bidez erabakiko du.

Berdinketa ekitaldi publikoan egingo den zozketa bakar baten bidez erabakiko da. Alfabetotik bi letra aterako dira ausaz, eta berdinketak lehen abizenaren hurrenkera alfabetikoaren arabera erabakiko dira, ateratako bi letretatik abiatuta. Ondorio horietarako, «ZZ» letren ondoren «AA» letrak agertuko dira. Hautagai bakar baten lehen abizena ateratako bi letrekin hasten ez bada, hurrengo abizenera joko da hurrenkera alfabetikoan, eta «ZZ» letren atzetik «AA» letrak datozela ulertuta. Zozketaren emaitzak Basauriko Udalaren webgunean eta iragarki-oholean argitaratuko dira.

Hautaketa-prozesua amaitutakoan, epaimahaiak Udalaren helbide elektronikoan argitaratuko ditu gainditutako pertsonen behin-behineko kalifikazioak, lortutako guztizko puntuazio handienetik txikienera ordenatuta, eta berariaz adieraziko du zer pertsona hautatu diren. Hautatutako pertsonen kopurua ezingo da izan deitutako plazena baino handiagoa.

Gainditutako behin-behineko zerrenda hori argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, interesdunek 10 egun balioduneko epea izango dute egoki irizitako erreklamazioak aurkezteko.

Epaimahaiak, erreklamazioak, halakorik bada, ebatzi ondoren, hautaketa-prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrenda argitaratuko du.

Ondoren, epaimahaiak praktiketako funtzionario izateko proposatutako izangaien zerrenda argitaratuko du, eta 15 egun balioduneko epea irekiko du, pertsona horiek dokumentu konpultsatuen bidez 3. oinarrian jasotako parte hartzeko baldintzak betetzen dituztela egiaztatu dezaten, eta, puntuazio-ordenaren arabera, lanpostuetako plaza hutsak betetzeko beren lehentasun-ordena jakinaraz dezaten. Halaber, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) NANaren fotokopia konpultsatua.
- b) Izangai atzerritarrek Basauriko Udalaren jakinarazpen bat jasoko dute, eta jakinarazpen horretan, beren egoeraren arabera nahitaez aurkeztu behar dituzten agiri zehatzak aipatuko dira.
- c) Zinpeko aitortpena, non adieraziko baita izangaia ez dagoela funtzio publikoak betetzeko ezgaituta eta ez dagoela diziiplina-espeditate bidez edozein administrazio publikoren zerbitzutik bereizita, ez eta Administrazio Publikoaren zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako legezko ezgaitasun- edo bateraezintasun-arrazoi batean sartuta ere.
- d) Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek zinpeko aitortpena aurkeztu beharko dute, non adieraziko baitute beren estatuan funtzio publikoan sartzea eragozten dien diziiplina-zehapenik edo zigor-kondenarik ez dutela.



- e) Hautatutako pertsonak egiaztatu beharko dute ez dutela oinarri hauen arabera dagozkien eginkizunak betetzea eragozten dien gaixotasunik edo akats fisikorik edo psikikorik. Hori egiaztatzeke, dagozkion proba eta azterketa medikoak egin beharko dituzte Basauriko Udalak dituen lan-osasuneko zerbitzuetan. Lanpostuan jarduteko gaitasun funtzionala egiaztatzeke proba eta azterketa medikoak egiteko deialdia modu pertsonalizatuan egingo da.

Adierazitako epearen barruan eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, izangaiek ez badute beren dokumentazioa aurkezten edo ez badute egiaztatzen eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela, ezin izango dira izendatu, eta jarduketa guztiak deuseztatuko dira, eskabidea faltsutzeagatik izan dezaketen erantzukizuna ezertan eragotzi gabe. Kasu horretan, ordeztu egingo dira hautaketa-prozesuaren emaitzaren puntuazio-ordenari jarraituz, alde aurretik aipatutako dokumentuak aurkeztuta.

#### **10. Praktikak eta prestakuntzarako aldia**

Praktikak eta prestakuntza egiteko aldi bat egingo da, sei hilabeteko iraupena izango duena, maiatzaren 20ko 2070/2019 Alkatetza Dekretuaren bidez (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 110. zenbakia, 2019ko ekainaren 11) onartutako oinarri orokorren hamaikagarren oinarrian ezarritakoaren arabera.

#### **11. Izendapena eta kargua hartzea**

Basauriko Udalaren karrerako funtzionario izateko izendapena egingo da, maiatzaren 20ko 2070/2019 Alkatetza Dekretuaren bidez (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 110. zenbakia, 2019ko ekainaren 11) onartutako oinarri orokorren hamabigarren oinarrian ezarritakoaren arabera.

#### **12. Aldi baterako lan poltsak**

Hautaketa-prozesu honen emaitzatik lan-poltsa bat eratuko da. Lan-poltsa horrek 3 urteko iraupena izango du, eta oposizio-faseko ariketak gainditu dituzten izangaiekin osatuko da. Lan-poltsa hori aldi baterako langile-beharrak betetzeko erabiliko da, eta Basauriko Udaleko lan-poltsak arautzeko araudian ezarritakoaren arabera kudeatuko da, hurrengo paragrafoan ezarritakoa alde batera utzi gabe.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera eratutako lan-poltsa agortu bada, lehen-tasuna izango dute, beste lan-poltsa batzuen aldean, nahitaezko ariketa eta ariketa baztertzaile gehien gainditu dituzten pertsonak osatutako zerrendek, gainditutako ariketa horietan lortutako guztizko puntuazioaren ordenaren arabera.

Berdinketarik gertatuz gero, deialdi honetan berdinketa hausteko ezarritako irizpideen arabera erabakiko da, hots: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2015 Legean ezarritako irizpideen arabera; oposizio-aldiko bigarren ariketan kalifikazio altuena duenaren alde; oposizioaren lehen ariketaren b) atalean puntuazio handiena lortu duenaren alde; eta, azkenik, zozketa bidez.

Lan-poltsetan kontrataziorako deia jasotzen duten pertsonak soilik aurkeztu beharko dituzte deialdian eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak, kontratua formalizatzen denean, eta, horretarako, agirien kopiak aurkeztu beharko dituzte.

Hala ere, lan-poltsa eratu ondoren lortutako euskararen hizkuntza-eskakizunak edozein unetan aurkeztu ahal izango dituzte, Giza Baliabideen Sailean. Datu hori lan-poltsan sartuko da, baina horrek ez du handituko interesdunak lan-poltsan duen azken puntuazioa; hortaz, lan-poltsa eratzeke hurrenkera bere horretan mantenduko da.

#### **13. Datu pertsonalak babestea**

Hautaketa-prozesuan bildutako edo sortutako datu pertsonalak datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera tratatuko dira.

Eskabideetan emandako informazio guztia fitxategi batean sartuko da, eta fitxategi hori soilik erabiliko da hautaketa-prozesua kudeatzeko eta aldi baterako kontrataziorako sortutako lan poltsa kudeatzeko eta bitarteko funtzionarioak izendatzeko.



Deitutako lanpostuak lortu nahi dituzten pertsonak berariaz onartuko dute aurkeztutako datuak tratatzea, baldin eta datuok segurtasun-neurriak behar badituzte eta hautaketa-prozedurarako beharrezkoak badira.

Hautaketa-prozesuan emandako datuak beste administrazio publiko batzuei utzi ahal izango zaizkie, hala eskatzen badute. Hala, izangaiek, titular diren datu pertsonalak utzi nahi badituzte, berariazko baimena eman beharko dute deialdiaren eskabidean.

Hautaketa-prozesuan parte hartzen duten pertsonen informaziorako eskubideak bermatze aldera, prozesuko zerrendak Internet bidez kontsultatu ahal izango dira, lehen aipatutako Basauriko Udalaren helbide elektronikoan.

Eskabidean adierazitako helbidea, telefonoak eta posta elektronikoa ontzat emango dira. Horiek jasotzean izan daitezkeen akatsak eta epaimahaiari horietan emandako al-daketa oro jakinaraztea eskabidea egin duen pertsonaren erantzukizuna da.

Jakinarazpenak egin ahal izateko, helbide gisa hartuko da eskabidean adierazitakoa, salbu eta geroago beste bat espresuki eta modu frogagarrian jakinarazten bazaio deialdia egin duen agintariari.

#### **14. Gorabeherak**

Epaimahaiak ahalmena izango du sortutako zalantzak ebazteko eta hautaketa-prozesua behar bezala egiteko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusitako gabeko alderdi guztietan.

Deialdi hau, haren oinarriak eta haietatik eta epaimahaiaren jardunetik eratorritako administrazio-egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako epean eta moduan.

**GAIAK****ZATI OROKORRA**

1. gaia: 1978ko Espainiako Konstituzioa. Printzipio orokorrak.
2. gaia: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua: 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena: Atariko titulua.
3. gaia: Udal-antolakuntza (Espainiako Konstituzioaren 140. artikulua). Udal-antolakuntza (Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko Legearen 19. eta 20. artikulua).
4. gaia: 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa. Legearen helburua. Aplikazio-eremua. Emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa. Administrazio Publikoetako jarduera-irizpi-deak (1, 2, 3 eta 51. artikulua)

**ZATI ESPEZIFIKOA**

5. gaia: Ur-hornidura eraikinetan. Oinarriko kontzeptuak. Emariak, kontsumoa, abiadura, presioa, sekzioak. Instalazioa, mantentze-lanak, materialak, soldadura. Hodi-motak eta haien ezaugarriak, espezifikotasunak eta muntaketa. Piezak eta elementuak. Araudi aplikagarria.
6. gaia: Ur-hornidura eraikinetan. Neurriak eta gutxieneko emariak etxeko aparatuetan. Txorrotak eta mekanismoak. Fluxumetroak. Instalatzea, aldatzea eta mantentzea.
7. gaia: Ur bero sanitarioaren instalazioa. Instalazioa eta espezifikotasunak. Materialak. Araudi aplikagarria.
8. gaia: Ur horniduraren sare publikoa. Instalazioa, elementuak, mantenimendua, materialak, tresnak. Hodi motak eta horien ezaugarriak, piezeria, hartuneak, balbulak eta beste elementu batzuk. Planoen eta dokumentazio teknikoaren interpretazioa. Araudi aplikagarria.
9. gaia: Ur horniduraren sare publikoa. Sarea martxan jartzea, hornidura-mozketak eta berriz jartzea, presio-, estankotasun- eta osasungarritasun-probak. Funtzionamendu egokia egiaztatzea, ihesak eta beste arazo batzuk detektatzea. Presioa eta emaria kontrolatzea.
10. gaia: Ur horniduraren sare publikoa. Matxurak konpontzea.
11. gaia: Ur-tratamenduak. Kontsumoko uraren osaera, deskaltzifikazioa, desmineralizazioa, pH-a. Korrosioak eta inkrustazioak: motak eta horien prebentzioa. Legionela prebenitzea. 140/2003 ED.
12. gaia: Fibrozementuzko hodiak konpontzeko edo aldatzeko prozedura eta jarduketak espezifikoak.
13. gaia: Punpak eta presio-igogailuak Ponpen motak eta funtzionamendua, presio-igogailu baten osagaiak. Mantenimendua. Lohiak ponpatzea.
14. gaia: Eraikinetako ur-ebakuazioa eta saneamendua. Instalazioa, mantentze-lanak, materialak. Sareen dimentsionatua. Araudi aplikagarria. Teilatu eta estalkietako puntu bereziak, iragazgaiztea. Erretenak eta zorrotak. Sifoiak.
15. gaia: Saneamenduko eta euri-urak husteko sare publikoa. Instalazioa, mantentze-lanak, materialak. Sareen dimentsionatua. Araudi aplikagarria.
16. gaia: Saneamenduko eta euri-urak husteko sare publikoa. Sarea martxan jartzea. Funtzionamendu egokia egiaztatzea, arazoak hautematea. Matxurak eta funtzionamendu-arazoak konpontzea.



17. gaia: Saneamenduko eta euri-urak husteko sare publikoa. Eraikuntzaren kode teknikoa.

18. gaia: Zangetako lana, betetzeko eta trinkotzeko teknikak. Obra-seinaleztapena bide publikoetan.

19. gaia: Planoen interpretazioa, eskalak. Krokisak egitea eta interpretatzea. Sinbologia.

20. gaia: Lan-arrisku espezifikoak prebenitzea, iturgintza-zereginetan. Segurtasuna eta osasuna hornidura- eta saneamendu-sareak instalatzeko obretan. Segurtasun-elementuak. NBEak.